



GOZATU

UDABERRIKO

OPORRETAN



IRAKURTZEN ETA JOLASEAN
2024

JUAN SAN MARTIN
LIBURUTEGIA



GOZATU
jolasean

KAIXO, FAMILIA

Eibarko Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Juan San Martín Udal Liburutegiak opor garaian familian euskaraz gozatzeko moduko jolasak eta liburu gomendioak proposatzen dizkizuegu.

Opor garaian seme-alabekin egoteko denbora gehiago dugunez, euskara eta irakurmena indartzeko ere une egokia da.

Oporretan irakurri eta egin jolas elkarrekin!

GOZATU
irakurtzen

El Servicio de Euskera y la Biblioteca Municipal Juan San Martín os ofrecemos una selección de juegos y libros en euskera para disfrutar en familia durante las vacaciones.

Las vacaciones también son una buena época para ayudar a nuestros hijos e hijas a reforzar el euskera y la lectura mediante la diversión.

¡Las vacaciones son una buena ocasión para leer y jugar juntos!

0-4 URTE



EZ IZAN
ZELDURRIK,
KARRAMAROTXO



Eoin McLaughlin ★ Polly Dunbar

Orroa



EGUZKIA
EZKUTATZEN
DENEAN



ALICIA ACOSTA ★ IÑAK FERRERO

AGNESE BARUZZI

NON EGITEN DUZU LO?


TARTTOLA

GOZATU IRAKURTZEN!



GOZATU IRAKURTZEN!

+ 5 URTE



TOMAS TXANTXAZALEA JORGE RICO RÓDENAS

Pamiela, 2024

Tomas haur geldiezina da, eta izugarri gustatzen zaio bisitak etortzen direnean mozorrotzea. Amaren lagun batek, Roberta izebak, Javier lagunak, albaitariak, ingeleseko irakasleak eta bizilagunaren semealabek etxean aurkitzen dituen objektuekin egindako mozorro bitxiak eta bihurrikeriak jasango dituzte.

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)



EZ! ESAN ZUEN ZALDUNA LUCY ROWLAND

Ibaizabal, 2019

Ned zalduntxo oso jatorra da, eta beti esaten du "BAI" irribarrez. Harik eta egun batean esaten duen arte... "EZ!" Baina herensuge bakarti batek bere laguna izateko eskatzean, Ned ez da berehalakoan erabakitzeko gai. Zer egingo du? esango du? Ala agian esango du... "BAI"?

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)



PRINTZESA TXIZONTZIA XABIER MENDIGUREN ELIZEGI

Elkar, 2014

Karolina Potolina printzesak bazuen ezaugarri bat, munduko printzesa guztien artean berezia egiten zuena: txizontzi bat zen, beti eta nonahi pixa egin behar izaten zuena, eta horrek hainbat arazo sortzen zizkion: txikitari, jolastari edo ikasten ari zenean; eta berdin handitu zenean eta Erresumako ardurak hartu behar izan zituztenean: militarren desfileetan, dantzaldi dotoretan, ministro eta abarrekin egiten zituzten bileretan, beste zeregin guztiak utzi eta txiza egitera joan behar zuen, lasterka eta korrika. Zer egin? Nola konpondu arazo hori, konponbiderik baldin bazeukan?

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)

GOZATU IRAKURTZEN!

+ 5 URTE

GORA GURE ALKATE JAKINTSUA! TXABI ARNAL GIL

Elkar, 2023

Hiritarrek arazo larri bat dute, eta horregatik jo dute Alkatearengana. Aholkulari talde batekin bildu ondoren, arin eta prestu erantzun die Alkateak; jakintsua izateaz gain, beti baitago hiriaren alde. Hiritarren zerbitzura. Baina arazoaren konponbideak beste arazo bat sortuko du, eta bigarren honen konponbideak hirugarren arazo bat. Eta horrela, konponbide batetik bestera arazoak biderkatu egingo dira hirian. Halako batean, alkatea bera arazo bihurtzen den.

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)

GORRI ETA BOROBILA MIKEL LARRETXI

Babidi-bú, 2023

Emozioen kudeaketa elementu bereizgarri baten galearen aurrean. Inolako mozorrik jantzi beharrik benetan garen bezalakoak izartearen garrantzia. Kolorez beteriko bizitza baten alde.

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)

KIXKUR ~~PINTTOREN ARREBA~~ IÑIGO ASTIZ


Elkar, 2022

Pinttok, abestiko Pintto famatu horrexek Pintto, Pintto, gure txakurra da ta, Pintto, Pintto bere izena du bazuen arreba txiki bat Kixkur izenekoa. Hau da bere istorioa.

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)

GOZATU IRAKURTZEN!

+ 8 URTE



ALTXORRA ITSAS AZPIAN PEPE MAESTRO

Ibaizabal, 2023

Uda amaitzeko zorian dago, baina Martinak sorpresa bat dauka Bioletarentzat: altxor ezkutu bat erakutsi nahi dio. Kontua da kostaldetik urruti samar dagoela eta itsasoak marea arriskutsuak dituela, ausardia eta ausarkeria bereizi behar direla...

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)



MARI, MERI ETA MORI SORGIN AUSARTAK ANTTON KAZABON

Denonartean, 2022

Marik, Merik eta Morik arazotxo batzuk dituzte zenbait lagunekin, baina egun batean zerbait berezia aurkitzen dute Mariren etxeko ganbaran. Handik aurrera, gaitasun berri baten jabe egiten dira, eta eguneroko arazoei aurre egiten lagunduko die. Fantasia eta errealitatea nahastu behar dituzu ipuin magiko honetan murgiltzeko eta hiru protagonistekin batera bertako bizipenez gozatzeko.

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)



CLIONAREN KANPAIAK AMAIA TELLERIA

Alberdania, 2022

Zuhara, lehorreko egonaldiaren ondoren, itsaz azpiko bere mundura dator berriz. Bertan du zain Balea Beltzaren klan osoa. Bere botereak indartzeko asmoz, Perpetua sorginaren aholkuak beteko ditu Zuharak. Lehenik eta behin, ukendu bat erabiliko du gauero, eta, horrela, bere itsasoko jatorria ezagutuko du ametsetan. Horri esker, bere amari gertatu zitzaiona jakingo du apurka-apurka... Bitartean, Caer Ys hirian Udazkeneko Jokoen garaia da, eta Zuharak itsas azpiko beste hiri bat ezagutuko du, bestelako ohitura eta sinesmenak dituen. Hango biztanleak, ordea, ez dira Zuharaz fidatzen...

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)

GOZATU IRAKURTZEN!

+ 8 URTE



ANNA KOPEK ETA DRAGOIAREN BIHOTZA HARITZ LARRAGETA

Erein, 2023

Desertuko harea galtzerdietan oraindik, Beijingera joan beharko dute Uxuek eta Jokinek. Han, mundua kontrolatzen saiatzen ari den pertsona nor den jakingo dute, azkenean.

Baina, zer da Shenlong proiektua?

Eta zergatik da hain garrantzitsua dragoiaren bihotza?

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)




AZKEN DENBORA NEREA LOIOLA

Erein, 2023

Arriskuak, dilemak, eta abenturak aurkituko dituzu «Eskapu» bildumako bigarren liburu honetan ere. Erabakiak hartu beharko dituzu eta enigmak ebatzi. Zure gaitasunak eta adimena erabili beharko dituzu. Erabaki txar batek hondamendia eragin lezake... eta heriotza ere bai!

Baina ez etsi. Edozein unetan egin dezakezu atzera eta beste aukera bat hautatu, zure istorioaren ibilbidea aldatu dezakezu.

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)



NASHA CÉCILE ROUMIGUIÈRE

Ibaizabal, 2023

Nasharen amari itzali egin zaio irribarrea, galdu du arima, ezin hura anama! Edo bai ... Eskolara bidean, giza itzal bat agertu zaio, antzinako gizon baten itzalam. Eta bai ... Haren gerizpean, Nashak ipar amerikako herrien historia ezagutu du, baita familiarena ere. Aukera paregabea, agian, amaren irribarrea pizteko, amaren jatorriarekin bat egiteko!

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)


GOZATU IRAKURTZEN!

+ 12 URTE


MENDEKU ESKUBIDEA ERNESTO PRAT URZAINKI

Elkar , 2024

Larru neska punk toxikomano ohia, Baztango udalaren enplegu babestuko brigadan dabil, zenbait ijito eta marokoarrekin batean, bide ertzeko sasiak garabitzen eta seinaleak pintatzen ; alde batera utziak ditu lehengo ohiturak eta makurdurak, baina ikusten dituen injustizien aurrean bor-bor sentitzen du barruan mendekutarako gogo.



[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)




SURFLARIA UXUE ALBERDI

Ikastolen Elkartea, 2023

Amaiak telefono dei bat jaso du: hamar urte igaro ostean hiltzat jo dute Eki, itsasoan desagertu zen laguna eta maitalea. Haren arrastoaren atzetik abiatuko da Amaia, bizitzaren eta heriotzaren urek bat egiten duten istorio honetan.

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)



LURRALDE EZEZAGUNA LUIS LEANTE

Giltza , 2023

Duela lau urte, sute batek Alberto Solerren biltegia suntsitu zuen Hondaresen. Kutxa gotorrean giza hezur batzuk aurkitu zituzten. Padilla agenteak kasuan pertsonalki inplikaturik ikusi zuen bere burua, eta ez bakarrik susmagarriarekin zuen adiskidetasunagatik baita semea, Diego, Albertoren alaba Aliciaren ikaskide zelako ere. Ikasturte horretan institutuan gertatu zen guztiak bizitza batzuk leherraraziko zituen metxa piztu zuen. Honako hau ikerketaren kontaketa da.

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)

GOZATU IRAKURTZEN!

+ 12 URTE

JOAN, JOANA FRANCISCO CASTRO

Alberdania, 2023

Joana jaio zenean, Joan zela uste zuten denek, eta hala inskribatu zuten. Joanaren ikastetxean futbol txapelketa bat egitekotan dira, eta badirudi zirrargarria izango dela, baina ez golengatik bakarrik. Joanak neska talde bat antolatzen du, baina ikastetxeko zuzendaritzak mutiltzat du bera, Joanak neska sentitzen dela behin eta berriz errepikatzen badu ere

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)



HAIZE LEIZEAN ELISE DILET, ANTTON HARIÑORDOKI

Elkar, 2023

Haize nerabe bakartia da, amarekin bizi da baina azken hau zainetarik eri da. Musikan trebe da Haize eta etxetik urrun den musika eskola famatu batean sartzeko proposamena heldu zaio: hautu bat egin behar du, ezezagunera jauzi erraldoia egin, ala bere egunerokotasunean egon, amaren ondoan. Behin, kolegioarekin, Izturitzeko leizeetara doa bisita baten egitera eta han Madelaine aroko neska gazte baten baitan gorpuztuko da.

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)



ITZALIK GABEKO IZAKIAK DANIEL HERNÁNDEZ CHAMBERS

Ibaizabal, 2023

Indar ilunak Nalcar Haranean barrena dabiltza. Aspaldiko etsai mendekuak Orcanstarren Etxea arriskuan jarri du. Bitartean, umezurtz geratu berri den Crey mutilak, ez daki zein neurritaraino aldatuko zaion bizia sorginkerien erruz

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)

GOZATU IRAKURTZEN!

Irakurri ondoren: Jirabira: irakurketa bultzatzeko jolasa
Irakurri, biratu erruleta eta asmatu!

Y después de leer: Jirabira: un juego para impulsar la lectura
¡Lee, gira la ruleta y acierta!



[INFORMAZIO GEHIAGO / MÁS INFORMACIÓN](#)

Eta orain jolastera ...

Y ahora a jugar



GOZATU IRAKURTZEN!

KUKURRUKU

ELKARRIZKETA ERAKO KANTA-JOLASA



-Kukurrukul!
 -Zer duzu?
 -Buruan min!
 -Zeinek egin?
 -Azeriak
 -Azeria non?
 -Errotapian
 -Zertan?
 -Garia biltzen
 -Garia zertarako?
 -Oiloari emateko
 -Oiloa zertarako?
 -Arrautzak jartzeko
 -Arrautzak zertarako?
 -Frijiduta jateko!

NOLA JOLASTU?

Ume txikiekin (2-3 urte), altzoan hartu eta umea gora eta behera erabili, kantatu bitartean. Handiagoekin (5 urtetik aurrera), umeak bi taldetan banatu eta elkarrizketa egin dezakete, parez pare jarrita. Elkarrizketa hori antzeztu egingo dute, keinuak eginez, eta gora eta behera mugi daitezke (orain zutik, orain makurtuta; hizketan daudenean, zutik).

ITURRIA

1. Ume txikiak altzoan hartuta kantatzen zuten (normalean helduek), umea gora eta behera mugituz.
2. Umeek gurdi gainera igota egiten zuten jolasa ere bazen, baserri girokoa. Ume bat pertikara igotzen zen, eta besteak azpian egoten ziren, burkoltzan, kontrapisua egiten. Elkarrizketa izaten zuten, pertika gora eta behera zerabilzela. Gero, beste ume bat igotzen zen pertikara. Jolas arriskutsua izan zitekeen pertika gainekoarentzat, jolasaren bukaeran gurdia denek batera kolpera uzten zutelako, eta baserri batzuetan debekatu egiten zieten gurdian jolastea.



ikasgelan.ahotsak.eus/fitzak/kukurruku



DON DON KIKILIKON

ZOTZ EGITEKO ANTZINAKO ABESTIA

Don Don
Kilikikon
Hortxe dator
Don Ramon
Saltsa pika
tortolika
Patinean
korrika!



Din-don,
Trikilikon
Saltsa fika, tortolika
Deuson
Aittona Martzelon
krisk eta krask eta
Kaxkamelon
Hara bera tronpeta
hara kirikon

NOLA JOLASTU?

1. Asko baldin badira, umeek biribil bat osatuko dute (zutik ala lurrean eserita) eta ume bat erdian jarriko da. Umeak gutxi baldin badira, berriz, nahikoa da elkarren ondoan jartzea, eta beste umea haien parean, aurrez aurre.

2-Umeak kanta kantatuko du, gainerako umeak banan-banan hatz erakuslearekin seinalatuz. Edo bestela denek kanta dezakete, eta umeak abestiaren erritmora seinalatu. Abestia bukatzen denean, "ka" esatean, seinalatzen ari den ume hori izango da aukeratua.

Askotan izaten da zerbaiterako zotz egiteko beharra: taldeak egiteko, zerbait egin behar duena aukeratzeko, zerbait banatzeko... Horrelako egoeretan erabil daiteke zotz egiteko kanta hau. Besterik gabe jolas moduan ere erabil daiteke, ondo pasatzeko.

PARTAIDE KOPURUA (GUTXIENEZ): 3



ikasgelan.ahotsak.eus/fitzak/don-don-kilikikon



POTXOLOKA

INTXAURRAK EDO HURRAK POTXOLO EDO ZULO BATERA BOTATZEA



ZER BEHAR DA?

Klariona, lurrean marra egiteko. Eta borobilak diren objektu txikiak (intxaurreak, hurrak, kanikak, gerezi hezurak...) eta zulo bat: "potxoloa".

Txapela ere erabil daiteke zulo moduan

NOLA JOLASTU?

Potxoloka jolasteko hainbat modu daude. Hona hemen sinpleenetako bat: Kaniketan bezala: intxaurreak/hurrak lurrean egindako zuloan sartzen saiatzea, hatzarekin bultzatuta edo airean jaurtita. Sartuz gero, beste jokalaria batzuei bidean geratutako intxaurre/hurra irabazten ditu. Txandaka egiten da, aldiko intxaurre/hurra bana jaurtitzen. Beste jolas bat, pixka bat konplexuagoa, ume handixeagoentzat:

1. Txapel/txano bat erabil dezakegu "potxolo" moduan; lurrean jarriko dugu, eta hurrak bertara jaurti. Zaku forma eman, hurrak errazago sar daitezten.

2. Jokalari denek hur kopuru bera izango dute hasieran: adibidez 15 hur. Nahi beste jokalarik parte har dezakete.

3. Marra bat marraztu, potxolotik 2- 3 pausora. Txandaka jaurtiko dituzte hurrak jokalariek handik potxolora (jaurtialdi bakoitzerako hustu egingo da). Hurrak esku bakarrarekin jaurti behar dira, eskukada batean. Ez da beti hur kopuru bera jaurtiko. Hauxe da araua: potxolora pareka sartu behar dira hurrak (2 edo 4); bestela, jokalaria bi hur galduko ditu (poltsa batean sar ditzakegu). Lehenengo bi hur jaurtiko dituzte jokalariek. Gero hiru, ondoren lau... Bostera iristean, berriro birekin hasiko dira. Jaurti aurretik, abisua emango dute:

Bi-bi! (2 hur jaurti eta 2 sartu behar dira potxoloan) Hiru-hiru! (3 hur jaurti eta 2 sartu) Lau-lau! (4 hur jaurti eta 2 edo 4 sartu) Bost-bost! (5 hur jaurti eta 2 edo 4 sartu)

4. Jaurti beharreko hur kopurua ez duen jokalaria erretiratu egingo da. Jokalari bakarra geratzen denean amaituko da jolasa: hura da irabazlea, eta baita hur gehien dituen ere! Aukera bat: hurrak zuritu eta denen artean jatea.

PARTAIDE KOPURUA (GUTXIENEZ): 2



ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/potxoloka



KIXKILLA-MIXKILLA ZENBAKIEKIN JOLAS EGITEKO KANTA



ZER BEHAR DA?

Objektu txiki bat: giltzak izan daitezke, pilota bat, kaxatxo bat... Eta leku zabala.

NOLA JOLASTU?

1. Ume denak, bat izan ezik, lurrean eserita jarriko dira, biribil bat osatuz. Zutik dagoenak objektu bat izango du eskuetan.
2. Lurrean eserita dauden haurrek kanta abestuko dute, begiak itxita eta eskuak begien aurrean jarrita. Bitartean, biribiletik kanpora dagoen umea kanpoko aldetik bueltaka ibiliko da, eta abestia amaitu aurretik eskuetan duen objektua lurrean utzi beharko du, umeren baten atzean. Eta bera ere han geratuko da, zutik, objektuaren ondoan.
3. Kanta amaitzen denean, ume guztiek begiak irekiko dituzte, eta atzera begiratuko dute, objektuaren bila. Bere atzean objektua ikusten duen umea jaiki egingo da, eta objektua jarri dionaren atzetik hasiko da korrika: harrapatu egin beharko du.
4. Objektua jarri duen umeak egin behar duena: biribilari bi buelta eman, eta hutsunea geratu den tokian eseri, beste umeak bera harrapatu aurretik. Bitarte horretan beste umeak harrapatzen baldin badu, zutik geratuko da berriro, objektua jartzen. Ez baldin badu harrapatzen, berriz, beste umearen txanda izango da.

Antzinako esaera-kanta hau zenbakiak ikasteko aproposa da, eta ume txikiekin erabiltzen da. Kantatu egin daiteke, beste barik, baina jolasaren bidez errazagoa da umeek kanta ikastea, behin eta berriz errepikatuko delako. Sokasaltorako ere aproposa izan daiteke. Lehenengo, abestia kanta daiteke, eta bukaeran kontatu: 1, 2, 3, 4, 5... saltaginak huts egin arte.

PARTAIDE KOPURUA (GUTXIENEZ): 4




ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/kiskilla-miskilla



ZAPIAREN JOLASA

ZAPI BATEKIN EGITEN DEN HARRAPAKETA JOLASA



ZER BEHAR DA?

Zapi bat eta jolasteko leku zabal bat.

NOLA JOLASTU?

1-Bi marra marraztuko ditugu lurrean, klarionarekin. Marren arteko distantzia umeen adinaren arabera alda daiteke: gero eta handiagoak, distantzia ere handiagoa. Adibidez, 6 metroko distantzia badago bi marren artean, erdibidean, 3 metrora, beste marka bat egingo dugu lurrean: hortxe ipiniko da zapia duena.

2-Zapia eutsiko duena nor izango den erabakiko dugu, eta gainerako umeak bi taldetan banatuko dira. Horretarako, zotz egin dezakete. Talde bietako kideen kopurua bera izango da, eta jokalaria bakoitzak zenbaki bat izango du. Sei baldin badira, batek 1 zenbakia izango du, beste batek 2 zenbakia... eta horrela 6 arte.

3-Talde bateko kideak marra baten atzean jariko dira eta besteak paran, beste marraren atzean. Zapiduna, berriz, erdian. Talde bakoitzetik aldiko bana irtengo da korrika. Zein? Zapidunak zenbaki bat esango du, eta zenbaki hori duten bi jokalaria (talde bakoitzetik bat) zapiaren bila abiatuko dira. Adibidez, zapia duenak "bi" esaten baldin badu, talde bakoitzeko "bi" zenbakidunak aterako dira korrika zapia hartzera.

4-Helburua: zapia hartu, eta bere taldekideei eramatea, marra dagoen tokiraino. Bidean doala, beste taldekoak harrapatzen baldin badu, zapia bestearentzat izango da. Zapia lortzen ez duena jolasetik kanpo geratuko da, eta bere zenbakia beste taldekide batek hartuko du.

5-Taldeetako bat jokalaria gabe geratzen denean amaituko da jolasa. Beste aukera bat: inor ez kanporatzea, eta umeak aspertutakoan edo puntu kopuru jakin batera iristean (adibidez, zapia 10 aldiz hartzea; zapia hartzen den aldiko puntu 1 lortuko dute) bukatzea jolasa

PARTAIDE KOPURUA (GUTXIENEZ): 5




ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/banderetara-zapiaren-jolasa



GOZATU JOLASEAN!

PUNTA ALA BURU

KOLORETAKO BURUDUN ORRATZAK ESKUAN GORDETZEA



ZER BEHAR DA?

Koloretako burua duten orratzak. Orratzen ordez egurrezko txotxak erabiliz gero (punta bat margotuta), txikiagoentzat ere egokia da (3 urtetik aurrera).

NOLA JOLASTU?

1. Umeak binaka jarriko dira. Ume bakoitzak orratz kopuru bera izango du (adibidez 5).
2. Umeetako batek orratz bat gordeko du eskuan, ukabila itxita, eta besteak orratza nola dagoen asmatu behar du: gora begira ala behera begira (punta ala buru).
3. "Punta ala buru?", galdetuko du ukabila itxita duenak. Eta asmatu behar duenak bietako bat esango du: adibidez, "Punta!". Eskua irekitzean orratzak punta gora begira baldin badauka, asmatu du. Berarentzat da orratza.
4. Bi jokalarietako bat orratzik gabe geratzen denean bukatuko da jolasa. Posible da beste jolas batzuk egitea ere: orratza bi eskuetako zeinetan dagoen asmatu behar izatea. Edo aldiko orratz bat baino gehiago ezkutatu, eta zenbat gorde dituzten asmatzea edo orratz horiek "punta ala buru" dauden asmatzea.

PARTAIDE KOPURUA (GUTXIENEZ): 2



ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/punta-ala-buru



TXINGOAN JOLASEAN

OIN BAKAR BATEN GAINEAN SALTOKA IBILTZEA



NOLA JOLASTU?

Txingoka egiten diren bi jolas jaso ditugu. Bietan zenbakiak eta laukiak marrazten dira lurrean, baina jolas bakoitzak bere berezitasunak ditu:

- **Harri-harrika:** Txingo jolas ezagunena. Objektua -harri txiki bat, normalean-eskuarekin jaurtitzen da lauki barrura: lehenengo 1 zenbakira, gero 2.era, ondoren 3. era... horrela zenbaki guztiak igaro arte. Txingoa joanda batu behar da harritxoa, aldiro-aldiro, eta bidean ezin dira laukietako marrak oinarekin zapaldu. Lurrean marraztutako laukiek gurutze forma hartzen dute, eta gurutzea sortzen den lekuan bi hankak jartzen dira lurrean: lauki bakoitzean oin bat. Buelta emateko lekuan atsedena-lekua egon daiteke.
- **Txingor-gainean edo txindurrika:** Objektua -kaxa biribil zapal bat, normalean- 1 zenbakian ipintzen da, eta handik aurrera ostiko txikiak emanez eraman behar da, zenbakiz zenbaki. Kaxa ezin da marren gainean geratu, eta oinarekin ere ezin da marrarik zapaldu. Lurrean marraztutako laukiek ez dute gurutze formarik, eta bukaeran atsedena-lekua dago, buelta ematen den tokian. Hainbat izen erabiltzen dira txingo jolasak izendatzeko. Deba bailaran txingoka edo txingoa izenez gainera, hauek ere jaso ditugu: Aretxabaletan harri-harrike eta txantxikurke, Elgoibarren txingor-gaiñian (edo txingorriñian), Bergaran txindurrika eta txantxirrika, Eskoriatzan txantxixuske, Antzuolan txintxurruka, Arrasaten losalosaka eta hanka-koskoka.

PARTAIDE KOPURUA (GUTXIENEZ): 2



ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/harri-harrike-edo-txingoka



ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/txingorriñian-edo-txindurrika



TXIRRITX

IPUINAK, PUZZLEAK, MEMORIA JOLASAK...

4-5 URTE

TXIRRITX KILKERRA

JOLASTU TXIRRITX



NAHI AL DUZU TXIRRITX KILKERRAREKIN JOLASTU?

Haur hezkuntzako 4-5 urteko Urbxintxa proiektuko joko dibertigarri honetan, Txirritx kilkerra izango da gidari eta gai ugari lantzeko aukera emango du.

Puzzleak, labirintoak, ipuinak, memoria jolasak... modu dibertigarri eta didaktikoan landuko dira.

Webgunean 11 gai topa ditzakezu. Gai hauek, Urbxintxa proiektuan, 4-5 urteko haurrek lantzen dituzten unitateekin lotura dute. Urbxintxa proiektua gelan lantzen dutenek, gai berdinak lantzen direla ikusiko dute. Baino Urbxintxa proiektua lantzen ez dutenek ere ongi pasako dute.

Gai bakoitzean ipuin bat dago eta hau ardatza izanik, ariketa mota desberdinak landuko dira: Labirintoak, puzzleak, memoria jolasak...



<https://txirritx.eus/>



GOZATU JOLASEAN!

GOOKAPI

ABESTIAK, SERIE INTERAKTIBOAK...



Gookapirekin, etxeko txikienak Garapen Iraunkorreko Helburuetan (GJH) oinarritutako hezkuntza-mundu dibertigarri batean murgildu daitezke.

Aplikazioak haurrak serie interaktiboen protagonistak izatea ahalbidetzen du, kapitulu zirrargarri bakoitzari forma ematen dioten erabakiak hartuz



Webgunea: <https://www.gookapi.com/eu>
App-a: <https://labur.eus/GookapiAplikazioa>



Webgunea



App

GOZATU JOLASEAN!

0-6 URTE



HITZIKI

Hiztegia ikasteko jolasa

Juego educativo para el aprendizaje de vocabulario en euskera



<http://hitziki.onoff.es/>




ANIMALIAK

Irakurketa lantzeko animalien inguruko jolasa.

Juego en euskera sobre los animales para descubrir las letras y practicar la lectura



<http://animaliak.onoff.es/>



ESANBAKI

Euskal gramatika eta hiztegia ikasteko jolasa

Aprende jugando vocabulario y gramática en euskera



<http://esanbaki.onoff.es/>



6-10 URTE




NOR DA?

Arreta, memoria eta hizkuntza garatzeko jolasa

Juego interactivo en euskera, que favorece el desarrollo de la atención, la memoria y el lenguaje



<http://norda.onoff.es/>



TXIKISUPER

Logika jolas interaktiboa

Juego interactivo de lógica en euskera



<http://txikisuper.onoff.es/>

